



Jone Ibarretxe, Irati Astobieta eta Garazi Basterretxea, Kalabazan elkarteko kideak. Monika del VALLE | ARGAZKI PRESS

infraganti KALABAZAN

Euskal kulturari ekarpena egiteko asmoz, Getxoko Udalak antolatutako lehiaketa batera aurkeztu ziren Jone Ibarretxe, Irati Astobieta eta Garazi Basterretxea. Lortutako sariaren dirua Kalabazan Kultur Ekimenak elkartea abiatu eta «book trailer» lehiaketa bat antolatzeke baliatu zuten. Bideopoesia eta poesia xuxurlatua dira haien ekarpenaren beste bi atal.

Kalabazan Kultur Ekimenak elkar-tearen istorio poetikoa orain dela hiru urte hasi zen, Getxoko Udalak gazteen artean proiektu berritzaileak sustatzeko Wanted lehiaketa deitu zue-nean. Edo, zehatzago esateko, Jo-ne Ibarretxe, Irati Astobieta eta Garazi Basterretxeak unibertsitate ikasketak amaitu zituztene-

an, Jonek eta Iratik Arte Ederrak eta Garazik Euskal Filologia. As-mo bera zebilkien gogoan hiru lagunei, bakoitzak bere esparru-tik euskal kulturari ekarpentxo-a egitea. Bazekiten zenbait leku-tan *book trailer* delakoak egiten zituztela, eta lehiaketara aurkez-teko proiektuaren ardatza hori-xe bera izan zitekeela bururatu zitzairen. Bururatu, eta burutu egin zuten. Euren proiektua, gainera, irabazleetako bat izan

zen, eta eman zieten dirua *book trailer* lehiaketa bat antolatu eta Kalabazan Kultur Ekimenak elkar-tearen webgunea abiatze-ko –baita horretarako presta-kuntza tekniko-a jasotzeko ere– baliatu zuten.

Book trailer lehiaketaren hel-burua gazteen artean irakurketa sustatzea da, irakurketa erakar-garri egiteko modua, teknologia berriak baliatuz, eta, aldi bere-an, gazteen sormena akuilatzea. 12 eta 18 urte bitarteko gazteek parte har dezakete lehiaketan, eta liburu bat irakurri ondoren haren gaineko trailer bat sortu behar dute.

«Gazteei literatura eta euska-ra euren ohiko esparruetara hurbiltzea ere bilatzen dugu, ka-su honetan ikus-entzunezkoen mundura. Halaber, sortzen di-tuzten bideoen bidez euren iru-dimena eta adierazteko gaitasu-na ere lantzea bilatzen dugu», azaldu dute. *Book trailer*-ena Ka-labazan elkar-tearen helburu na-gusiekin bat datorren jarduera da: gazteen artean kultura eta artea sustatzea, euskararen era-bilera bultzatuz.

Baina *book trailer* lehiaketa beren kultur elkar-tearen lehe-nengo proiektua baino ez da. Ideia berari eutsita, bideopoesia lantzen hasi ziren. *Book trailer*-en helburu eta prozedura ber-tsuak baliatzen dituzte, baina poesiara mugatuta. Hartara, ele-berri edo testu luze baten gaine-ko trailerraren ordez, poema bat da lanaren motiboa, betiere ikus-entzunezkoak baliatuta eta sormena landuz, animazioaren zein interpretazioaren bidez.

POESIA XUXURLATUA

Taldearen hirugarren proiektu nagusia, azkenik, poesia xuxur-latua da. Kartoizko tutu luze ba-ten bidez poemak errezipatzea, alegia. Tutu horren bidez iristen da xuxurla entzulearen belarri-ra. Tutua oso garrantzitsua omen da, xuxurlatzeko kanala delako, soinua zuzen eta ba-rreiatu gabe iristea errazten duen kanala, hain zuzen ere. Xu-xurlatzeko, poesia omen da ego-kiena, bai musikalitateagatik, bai eritmoagatik; edonola ere, mikroipuina ere xuxurlatu izan dituztela diote. Estatu fran-tseseko artista talde batek sortu omen zuen errezipatzeko modu hori; hala ere, Kalabazan elkar-teko kideek Argentinatik ekarri zuten Euskal Herrira, elkar-tea-ren helburuetarako praktika egokia zela iritzita. 2014an, Irati hara joan zen eta Cordobako ka-leetan Celeste Agüero argenti-narrak poema bat xuxurlatzerik nahi al zuen galdetu zion. Color Susurro taldeko kidea da Celeste, eta poesia xuxurlatua baliatzen du besteak beste Memoria-ren Egunean edo Emakumearen Egunean ekitaldiak antolatzeke.

Kalabazan elkar-tearen jardue-ren arrakasta ikusita, ikastaro edo tailerrak ere eskaintzen hasi ziren, *book trailer*-ak eta bideo-poesia egiten zein olerkiak in-terpretatu eta xuxurlatzen ikas-teko. Tailerrok *book trailer* lehiaketei begira antolatzen ha-si ziren, parte hartzaileak pres-tatzeko. Poesia xuxurlatuko tai-lerretan, halaber, ahozkotatua eta komunikatzeko gaitasuna lantzen dituzte. Lehenbiziko jar-duera tutua apaintzea omen da, eta lan horren bidez hasten dira



Poesia bizitzeko modua dela uste dute Jone, Irati eta Garazik. Monika del VALLE | ARGAZKI PRESS

ikasleak elkarrekin hitz egiten eta konfiantza hartzen.

HEGO AMERIKAN XUXURLAKA

Iaz, Kalabazan elkarteko kideei ekimen ibiltari bihurtu zitzairen euren jarduna. Urtarriletik maiatzera Txile, Argentina eta Uruguain izan ziren. *Book trailer* lehiaketarako eta bideo poesia egiteko formakuntza tailerrak ematera joan ziren, tutuak aldean. Celeste Aguerorekin harremanetan jarri eta Argentinako zenbait lekutan ibili ziren jendeari poesia xuxurlatzen, euskaraz, ondoren itzulpena egiten bazuten ere. «Garrantzitsuena entzutea da, ulertu baino lehen ere», azpimarratu dute.

Argentinan, kulturguneetan eta Buenos Airesko euskal etxean mugitu ziren gehienbat, eta hiru ikastetxetan bideo poesia tailerrak eman zituzten. Pozarren hartu zuten ikasleen parte hartze gogotsua. Saio bakoitzak hiru ordu irauten zituen. Poema

irakurtzen zuten eta gero ikasleek mozerroak eta han zeuden materialak baliatzen zituzten grabaketa eta animazioak egiteko. Bideo poesia formatua ego kiagoa zen saioetarako, liburu bat irakurri beharrean, nahikoa baita poema bat entzutea.

Txilen eta Uruguain ere hainbat poema xuxurlatu zizkieten herritar ugariri, tartean Uruguaiako presidente ohi Pepe Mujicari eta haren emazte Lucia Topolanskyri. Kasualitatea izan omen zen. Lagunarteko solasean, gazte batek esan zien Mujica ezagutzen zuela, eta nahi bazuten deituko ziola. Txantxetan ari zelakoan, baietz esan zioten.

«‘Book trailer’-ek gazteei literatura eta euskara euren ohiko esparruetara hurbiltzea bilatzen dute, eta sortzen dituzten bideoen bidez euren irudimena eta adierazteko gaitasuna lantzea»

Txilen, Argentinan eta Uruguain hainbat poema xuxurlatu zizkieten herritar ugariri, tartean Uruguaiako presidente ohi Pepe Mujicari eta haren emazte Lucia Topolanskyri

Txantxa serioa izan zen, ordea, lagunak presidenteari deitu eta presidenteak euskal poesiaren xuxurla entzuteko gonbita onartu baitzuen. Maiatzaren 1a zen, eta mitin baten ondoren bazkaria egin zuten Mujicak eta

bere alderdi kideek. Hara joateko mezua bidali zien Mujicak Irati, Jone eta Garaziri, eta presidentetza mahaian jarri zituen. Mujicari Sarri nand iaren “Harriak eta herriak” poema xuxurlatu ondoren, Jo

xean Artzeren “Txoria txori” xuxurlatu zioten Luzia Topolanskyri. Hunkitu egin omen ziren biak.

Kalabazan kultur elkarteko ki deak ez dira poesiatik edo litera

turatik bizi. Irati AEK-ko euskara irakaslea da, Jonek bideogintzan lan egiten du, EITBn, eta Garazi, Liverpoolen euskara eta kultura eskolak ematen igarotako denboraldi baten ondoren, Feminismo master bat egiten ari da uneotan. Ez dira poesiatik bizi, baina uste osoa dute poesia bizitzeko modua dela, eta edozein lekutan topatzen dela. Baliteke hala izatea; edonola izanda ere, eurek hemen ez ezik, etxetik milaka kilometrotara ere topatu zuten.

Datorren martxorako Duran gon *book trailer* tailer bat egitea aurreikusita daukate, baina haren aurkezpena abendu hasieran izango da, lekurik aipose nean, bertako Liburu eta Disko Azoka entzutetsuan, hain zuzen.

Hara Jone, Irati eta Garazik euskal kulturari egindako ekarpen xuxurlaria. *Eta hala bazan ala ez bazan...* •

Xabier Izaga Gonzalez